

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure aplikazioak aurrera egin dezan, bezero zentzudunak eta munduan dauden kausekin benetan konprometituta daudenak beharko ditugu, besteak beste, Palestinako herriaren eskubideen defentsan eta edozein faxismo edo autoritarismoaren aurkako jarrera dutenak.. Bezero mota hori Euskal Herrian aurkitzea errazagoa izango dela uste dugu, gure gizarteak duen kontzientzia mailagatik. Zehazki, gure aplikazioaren erabiltzaile nagusiak gazteak izango dira, teknologia berriak trebetasunez erabiltzen dituztenak eta ingurune digitaletan erosotasunez mugitzen direnak.

Lehentasuna ematen zaie euskarazko musikan interesa duten pertsonentzat, musika hori ez soilik adierazpen artistiko gisa, baizik eta euskal identitatearen eta bizimodu-filosofia osagai gisa baloratzen dutenei. Halaber, aplikazioa erabiltzaile digital ohiengan pentsatuta dago, streaming plataformetan eta podcast formatuetan esperientzia dutenak, artista berriak eta eduki kultural osagarriak ezagutzeko interesa dutenak.

Perfil horrek gazte kritikoak eta hausnartzaileak barne hartzen ditu, diskurtso nagusiak zalantzan jartzeko gaitasuna dutenak, zentzuzkoak eta jakin-min intelektual handikoa dutenak. Gainera beraien gizarte- eta familia-inguruan proposamenaren zabalkundea susta dezaketenak. Segmentazioak esperientzia kultural integralak bilatzen dituzten pertsonak ere kontuan hartzen ditu, non musika, informazioa eta komunitate parte-hartzailea elkarlotzen diren, euskal kulturaren ikusgarritasuna handituz eta kontzientziario eta parte-hartze aktiboaren bidez eragin sozial positiboa sustatuz. Bereziki, Euskal Herrian, halako perfila aurkitzea errazagoa dela aurreikusten dugu, gizartean pentsamendu kritiko sendoa eta kontzientzia soziala sustatzez gain, euskal kultura eta balio kritikoak modu eraginkorrean zabaltzen direlako.

Segmentazioak esperientzia kultural integralak bilatzen dituzten pertsonak ere kontuan hartzen ditu, non musika, informazioa eta komunitate parte-hartzailea elkarlotzen diren, euskal kulturaren ikusgarritasuna handituz eta kontzientziario eta parte-hartze aktiboaren bidez eragin sozial positiboa sustatuz.

Barruan dagoen profila nagusi da guretzat, baina ez dugu garrantzirik ematen adinari, generori edo bestelako ezaugarriari; garrantzitsuena pertsona horren kontzientzia kritikoa, konpromiso soziala eta euskal musikarekiko eta kulturarekiko interesa da.